

KPFLren ALDAKETA

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak indarra hartu zuenetik hasierako hilabeteak joan diren honetan, testua teknikoki hobetzeko zenbait premia hauteman dira, baita zuzentzeko moduko zenbait akats ere.

Honako hauek dira, hain zuzen, aldaketa honen alderdirik nabarmenak: artikulua bat erantsi da kontratuak formalizatzeari buruz, jada ez da esaten jendaurrekoa izanen dela formula bidez ezin zenbatetsi diren irizpideak irekitzeko ekitaldia eta mugatu egin dira ondare-negozio juridikoak.

Kontratuaren formalizazioari dagokionez, beste artikulua bat erantsi da arlo horretan zegoen hutsunea betetzeko, jatorrizko testuak hainbat aldiz aipatzen baitzuen kontratuaren formalizazioa, baina ez baitzuen, ordea, berariazko arauketarik xedatzen.

Bestetik, jada ez da esaten jendaurrekoa izanen dela formula bidez zenbatesten ahal diren irizpideak irekitzeko ekitaldia, zeren 2018ko urriaren 18az geroztik modu elektronikoan lizitatu beharra dago Nafarroako Lizitazio Elektronikoaren Plataformaren bitartez. Plataforma horrek bermatzen du eskaintzak sekretupean daudela harik eta formula bidez zenbatetsi ezin diren irizpideen balorazioa bukatu arte, halako moldez non bermatzen baita balorazio hori egiten dutenen independentzia eta, orobat, zuzen aplikatuko direla kontratazio publikoaren printzipioak, batez ere berdintasun-printzipioa. Hala ere, gardentasuna funtsezkoa denez kontratazio publikoaren sistema zuzenago bat lortzeko, informazio horren izaera publikoari eutsi zaio.

Azkenik, ikusi da komenigarria zela xedapen gehigarri bat eranstea egoki mugatzeko, elkarlan publiko-pribatuaren esparruan, zein diren kontratu publikoen legeriaren mende dauden negozio juridikoak eta zein ondareari buruzko araudiaren mende. Emakidadunak administrazio emakida-emailearen alde eginiko ordainketak egoteak ezartzen du non dagoen muga hori.

Aldatu diren gainerako artikuluetan, berriz, akats materialak zuzendu dira, eta azalpen edo zehaztapen teknikoak gehitu.